





Uraren Nafarroako Foroa

Informaziorako eta
Herritarren Parte
Hartzerako Plataforma



Nafarroako
Gobernua



Nafarroako Ingurumen
Arloko Baliabide Zentroa
FUNDAZIOA

Izenburua: Uraren Nafarroako Foroa
(Herritarren Informaziorako eta
Parte Hartzerako Plataforma)

Argitaratzailea: Nafarroako Ingurumen Arloko
Baliabide Zentroa (CRANA)
Aita Adoain kalea, 217 (behea)
31015 Iruña
Tel: 948 13 65 87 - 948 14 08 18
Fax: 948 12 32 35
Agua@crana.org
www.crana.org

Diseinua eta maketazioa: HEDA Comunicación

Argazkiak: CRANA, Nafarroako Gobernuko
Ingurumenerako Zuzendaritza
Nagusiko Artxiboa, Iñaki Zaldúa.

Inprimaketa: ONA Industria Gráfica

Itzulpena: CCI Centro de Comunicación
Internacional, SL

Lege gordailua: NA-1545/2006

Sustatzailea:



Aurkezpena

Urari buruzko politika aldaketa prozesu sakona jasaten ari da bai Europan bai gure ingurunean.



Europako Batasunak Uraren Esparru Zuzentaraua onetsi du, ingurumen helburretan iraunkortasunari lotutakoak lehenesten dituena. Zuzentarau hori da abiapuntua eta erreferente nagusia gai honi dagokionez. Nafarroa bere politikak egokitzen ari da uraren kudeaketarako eta administrazioarako Europako eredu berriaren arabera, eta horretarako, 2005eko otsailaren 4an, Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onespena eman zion Uraren Kudeaketaren eta Erabilera Iraunkorraren Nafarroako Estrategiari, gai honi dagokionez aurrerantzean egin beharreko bidea zehazten duena.



Uraren kudeaketa iraunkorrerantz aurrera egiteak konpromisoa eta ardua partekatua eskatzen die eragile instituzionalei nahiz sozialei: Administrazioari, enpresei, erabiltzaileei, talde interesatuei, erakundeei eta hiritarrei, oro har. Uraren administrazio, kudeaketa eta erabilera iraunkor berrien arrakasta, neurri handi batean, gaiarekin lotura dugunok mintzatzeko, ikuspegi desberdinak emateko eta alde guztien interes zilegiak integratzeko izanen dugun gaitasunaren araberakoa izanen da.

Esparru Zuzentarauak eta Nafarroako Estrategiak inflexio-puntua markatzen dute prozesu honetan, eta apustu garbia egiten dute parte-hartze sozialaren alde uraren planifikazioan eta kudeaketan, gure ur-baliabideen kalitate handiagoa eta kudeaketa iraunkorragoa erdiesteko erronkari heltzeko baldintza ezinbestekoa baita.

Nafarroako Gobernuak, Uraren Esparru Zuzentarauak ezartzen duen parte-hartze sozialeko printzipioa bideratzeko, eta, aldi berean, Uraren Kudeaketaren eta Erabilera Iraunkorraren Nafarroako Estrategiaren 1. eta 3. Jomugak garatzeko, agindua eman dio Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroari (CRANA) Uraren Nafarroako Foroa era dezan.

Argitalpen honen helburua uraren kudeaketarako politika berriak Europan nahiz Nafarroan dituen gako nagusiak azaltzea da, eta, bidenabar, Uraren Nafarroako Foro honek aurrerantzean eragin nahi dituen ekimen eta lanen mamia, labur bada ere, aurkeztea. Gainera, ekimen honetan parte hartzeko gonbidapen irekia dira orrialde hauek, lehenago ere Nafarroan izan genuen bezala, "Energiak Gehituz" Foroan, (<http://www.crana.org>), hau ere CRANAK kudeatua.





Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ)

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EK Zuzentaraua, uraren politikaren alorrean ekimen esparru komuna ezartzen duena, 2000ko abenduaren 22az geroztik dago indarrean, eta jasoa dago Estatuako legedian, abenduaren 30eko 62/2003 Legean.

Zuzentarau hau, EBeko kide diren estatu guztietan derrigor bete beharrekoa, garen iraunkorrari atxikitako xedapena da. Alderdi berritzaileak ezartzen ditu, eta saketik berritzen ditu uraren plangintza, kudeaketa eta erabilera iraunkorrerako politikak, gaiarekin lotura duten eragile eta sektore guztiek parte hartu behar duteneko aldi berri bati hasiera emanez.

HELBURUA

Helburua du esparru komunitarioa ezartzea, kontinenteko lurgaineko urak, trantsiziokoak, itsasertzekoak eta lurrazpikoak babesteko, haien kutsadura aurrez galarazteko edo gutxitzeko, haien erabilera iraunkorra sustatzeko, ingurumena babesteko, uretako ekosistemen egoera hobetzeko eta uholde nahiz lehorteen ondorioak leuntzeko, bai eta uren eta ur-ekosistemen **“egoera ekologiko ona”** (biologikoa, hidromorfologikoa eta fisiko-kimikoa) lortzeko ere.

Zuzentaruaren tresna nagusiak honako hauek dira:

- kutsaduraren kontrola;
- gai arriskugarriak deuseztatzea;
- tarifa-politika bat ezartzea;
- arroen kudeaketaren plangintza egitea;
- uraren erabilera eraginkorra;
- ur-ekosistemen hondamena aurrez galaraztea;
- kaltetutako ekosistemak berriz egoera onean jartzea eta
- area babestuak ezartzea.

Uraren Esparru Zuzentaruaren testu osoa hemen:

http://europa.eu.int/eur-lex/pri/es/oj/dat/2000/l_327/l_32720001222es00010072.pdf





Herritarren parte-hartzea UEZn

UEZak bereziki azpimarratzen du uraren gestioan gizartearen parte-hartzea beharrezkoa dela. Hiru maila aipatzen ditu:

INFORMAZIOA

UEZak bermatu nahi du erabiltzaileek eta interesa duen orok informazioa eskura izatea.

KONTSULTA

Era berean, UEZak ziurtatu nahi die kontsulta zerbitzua interesa duten herritarrei, arroko plan hidrolagikoen plangintza egin, zehaztu, berrikusi eta eguneratzeko prozesuaren hiru aldi gakoetan, behinik behin.

PARTE-HARTZE AKTIBOA

Parte-hartze aktiboari dagokionez, UEZaren aplikazioan herritarrek parte-hartze aktiboa izatea nahi du, bereziki arroko planak egitekoan eta haien segimenduan.

Lege proiektua

Informazioa, herritarren parte-hartzea eta ingurumen justizia eskura izateko lege proiektuak, 2005ean Ministroen Kontseiluak onetsitakoak, Aarhusko Hitzarmena eranstean dio espainiar legediari. Herritarrek ingurumen osasungarria, informazioa eta justizia izateko duten Eskubidea aitortzen du Hitzarmen horrek, bai eta erabakietan parte hartzeko ere. Lege proiektu honen oinarrian zenbait arau nagusik ezarritako irizpideak daude, besteak beste Espainiako Konstituzioak, Rioko Adierazpenak, eta, hurrenez hurren, informazioa eta parte-hartze publikoa (2003/35 eta 2003/04) arautzen dituzten zuzentarau komunitarioek ezarritakoak.

Foru Legea

Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak berak ere aurreratzen du beharrezkoa dela informazioa eta parte-hartze publikoa sustatzea Ingurumenarekin lotutako plan eta programen plangintzan eta kudeaketan.

Ingurumenaren gaineko informazioa eskura izateari buruzko informazio gehiago:

Aarhusko Hitzarmenaren testu osoa
2003/04 Zuzentaraua (Herritarren sarbidea informaziora)
2003/35 Zuzentaraua (Herritarren parte-hartze plan eta programetan)
http://www.mma.es/info_ciud/informacion/

Martxoaren 22ko 4 /2005 Foru Legea, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa.
<http://www.cfnavarra.es/BDN/054/05401001.htm>




Arroko Plan Hidrologikoetarako aurreikusitako edukiak:


1. Mugape hidrografikoaren deskribapen orokorra
2. Giza jardueraren presioen eta inpaktuen laburpena
3. Gune babestuen erregistroa
4. Lurgaineko eta lurrazpiko uren eta babestutako guneen egoeraren segimendua
5. Ingurumen helburuen zerrenda
6. Uraren erabileraren azterketa ekonomikoa
7. Neurrien programaren laburpena
8. Azpiarroen ikerketa.
9. Informazio publikorako eta kontsultarako neurriak
10. Gaian eskumena duten agintariak
11. Informazio puntuak

Egutegia

Esparru Zuzentzarauak bere artikulutegian hainbat epe zehazten ditu hurrenkeran, arauen ezarpenerako eta betetzeko, ondoko egutegian laburtzen direnak:


Data	Edukia	Informazio gehiago
2000/12/20	> Zuzentzaraua indarrean jartzea. 25. art.	http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/lvb/l28002b.htm
2003/12/22	> UEZ kide diren estatuetako legedira eramatea. 24. art. > Arro hidrografikoak eta eskumena duten Agintaritzak zehaztea. 3. art.	http://oph.chebro.es/Normativa/LeyDeAguas.pdf
2004/12/22	> Urari eragiten dioten presio eta inpaktuen azterketak eta analisi ekonomikoak osatu dira. 5. art.	http://www.chebro.es http://www.chnorthe.es
2006/12/22	> Zainketa-programek eraginkorrak izan behar dute, uraren kudeaketari oinarri emateko baliagarri izan daitezten. 8. art. > Herritarrendako informazioa eta kontsulta: egutegia, lan-programa eta kontsulta neurriak Arroko Plan Hidrologikoa (APH) zehazteko. 14. art.	
2007/12/22	> APHan sartu beharreko kudeaketa-gai garrantzitsuen behin-behineko eskema	
2008/12/22	> Arroko Plan Hidrologikoen aurretikostenen aurkezpena*. 13. art.	
2009/12/22	Arroko Plan Hidrologikoak eta Neurrien programak argitaratzea. 11. art. eta 13. art.	
2010	Prezioen politikaren ezarpena. 9. art.	
2012/12/22	Neurrien programak eraginkor izaten hasiko dira. 11. art.	
2015/12/22	Data honetatik aurrera bete beharko dira ingurumen helburuak. 4. art.	






Uraren Kudeaketarako eta Erabilera Iraunkorrerako Nafarroako Estrategia

Estrategia honek Nafarroan uraren kudeaketarako politika berri bat garatu beharra du oinarri, horixe agintzen baitute Uraren Esparru Zuzentzarauak eman eta sustatzen dituen irizpideek, eta helburua, berriz, baliabide honen eskuragarritasuna bermatzea du, erabilera iraunkorrago, orekatuago eta bidezkoago bat eginez. Nafarroako Uraren Estrategia zehaztean 7 jomuga aipatzen dira, eta ekintza plan bat, 15 helburu eta 43 programa dituena, bakoitza bere alde-aldeko aurrekontuarekin 2005-2009 eperako (2009an jarriko baita indarrean Arroko Plan Hidrologikoen berrikuspena).






Uraren Nafarroako Estrategiaren testu osoa:
<http://www.parlamento-navarra.es/castellano/boletines/2005/B2005021.pdf>



Printzipioak

Nafarroan uraren politika berri bat eragiteko printzipioak, Uraren Nafarroako Estrategian zehaztuak:




- 1 Ibaiak eta haien bazterretan** historian zehar loratu den ondarea **kontserbatzea**, eta urei itzultzea haien eginkizun eta ezaugarri funtsezkoenak.
- 2 Ura elkartasunaren printzipiotik abiatu**rik kudeatzea, guztion herentzia komuna baita, egungo belaunaldiok jaso duguna, eta etorkizuneko belaunaldien esku, ahalik eta baldintzarik onenetan, utzi behar duguna.
- 3 Ura aurrezte**a eta uraren kalitatea zaintzea, natur sistemak, ahal dela, aldatu gabe, kutsadura bere sorreratik murriztuz eta arazketa eskakizunak pixkanaka zorrozuz.
- 4 Ur baliabideak modu iraunkorrean kudeatzea** eta xahuketari aurre egitea, aurreztuz, erabilera eraginkorra hobetuz eta berrerabilera bultzatuz.
- 5 Parte-hartzearen eta irudimenaren kultura ezartzea**, gauza txikiak ongi egitea ardatz duten estrategia zuhurrei eta subsidiaritateari lekua eginez horrela, nahitaezko kudeaketa moduak izanen baitira.
- 6 Ura geure errealtatetik bizitzea**, hau da, **murriztapenak ezartzen dituen errealtate batetik bizitzea**, hau bateraezina delarik ondasun librearen kulturarekin, honek uraren eskaintza mugagabea eta diru publikoaren kargura aldarrikatzen baitu.
- 7 Lurgaineko nahiz lurrazpiko uren aprobetxamendua egitea baliabide bakartzat harturik biak**, bai baitakigu ziklo beraren parte direla, eta akuiferoen gehiegizko ustiake-ta eta kutsaduraren kontra borrokatzea dela aprobetxamendu bateratu horretarako egin dezakegun ekarpenik onena.
- 8 Ura guztion interesaren arabera kudeatzen den baliabide publikoa izatea defendatzea** uraren salerosketa eta espekulazio-gai gisa erabiltzea galaraziz.



Uraren Nafarroako Estrategiaren jomugak:

- 1** Parte-hartzearen eta informazioaren bitartez, uraren inguruko **kultura berri bat** garatzea, alegia, uraren iraunkortasuna eta etorkizuneko belaunaldiak ura erabili eta baliatu ahal izatea bermatuko duen kultura berria eragitea.
- 2** **Uraren egoera ekologiko egokia lortzea**, ur-ekosistema guztiak babestuz eta dauden arazoei konponbidea emanez.
- 3** **Uraren kudeaketa “eskariaren kudeaketan” oinarriturik garatzea**, premia guztiei erantzunez eta natur baliabideen erauzketa ahal den guztian gutxituz, beti ere efizientzia eta aurrezkiak sustatzen dituzten politikak garaturik.
- 4** Ura egungo eta etorkizuneko beharretarako **erabilgarri egonen dela** bermatzea; horretarako, ur-baliabide berriak erabiltzeko bidea segurtatuko da, garrantzi sozio-ekonomikoarengatik eta ingurumeneari eragin txikiagoa izateagatik estrategikotzat jotzen diren konponbideak garatuz.
- 5** Herritarrak **babestea uholde** eta **lehorte arriskuetatik**, prebentzioko, iragarpeneko eta lurralde-plangintzako politiken bitartez.
- 6** Ura orientabide estrategiko berrien arabera egoki kudeatzeko behar diren **bitarteko teknikoak** eta **giza bitartekoak** edukitzea, hala nola arau nahiz antolamendu tresnak.
- 7** Uraren **tarifa-molderako proposamen berriak** garatzea, arian-arian bertan barnertzeko asmoz erabileratik eta kontsumotik heldu diren kostuak, ingurumenari doazkion kostuak, sartuz.





Uraren Nafarroako Foroa

Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak CRANari (Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa) agindu dio Uraren Nafarroako Foroa antola dezan, bai eta informazioa, gizartea eta hezkuntza alorretako bestelako ekimen batzuk ere, Uraren Nafarroako Estrategian zehazten diren lehen eta hirugarren jomugan garapena gauzatzeko bidean.

Jomuga	Helburuak	Jomuga eta Helburuei loturiko Programak
Parte-hartzearen eta informazioaren bitartez, uraren inguruko kultura berri bat garatzea, alegia, uraren iraunkortasuna eta etorkizuneko belaunaldiak ura erabili eta baliatu ahal izatea bermatuko duen kultura berria eragitea.	<ul style="list-style-type: none"> > Gizartearen parte-hartze zabalena lortzea uraren erabilera iraunkorren kudeaketan. > Nafarroako gizarte osoari eta erabiltzaile mota desberdinei zuzendutako informazio eta kontzientziatze kanpainak garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> > Gizarteak parte-hartzeko programa. > Uraren erabilera eta kudeaketa iraunkorren aldeko jarduerak garatzen dituzten entitateei laguntza emateko programa. > Urari buruzko informazio-sarea garatzeko programa. > Herriarrei uraren arloko prestakuntza emateko programa.
Uraren kudeaketa “eskariaren kudeaketan” oinarriturik garatzea, premia guztiei erantzunez eta natur baliabideen erauzketa ahal den guztian gutxituz, efizientzia eta aurrezkia sustatzen dituzten politikak garaturik.	<ul style="list-style-type: none"> > Ur-baliabideen bilketa, garraio eta banaketa egituren eraginkortasuna areagotzea. > Erabiltzaileengandik kontsumo zentzuzkoa lortzea, erabilera bakoitzaren araberako eredu egokiei jarraiki. > Uraren kalitatea doitzea erabilera mota bakoitzaren beharren arabera. 	<ul style="list-style-type: none"> > Hiriko eta industriako erabilerarako eraginkortasun programa. > Nekazaritzako erabilerarako eraginkortasun programa, Nekazaritza azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legearen arabera. > Uraren kudeaketa hobetzeko programa. > Uraren aurrezpena sustatzeko herritarren kontzientziatze programa. > Efluentek modu planifikatuan berreraultzeko programa. > Baliabide alternatiboak erabiltzeko programa.

Uraren Nafarroako Foroaren Informazio eta Parte-hartze Publikoko Programa Ebroko eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoekin batera, era koordinatuan, gauzatuko da.





Uraren Foroaren misioa, helburuak eta eginkizunak

MISIOA

Uraren Nafarroako Foroaren misioa herritarren informazioa eta parte-hartzea sustatzea da, Nafarroako uraren administrazio eta kudeaketari dagokionez.

Gizarte, ekonomia eta instituzio arloko eragileen arteko lankidetzaren gunea da, Nafarroako Foru Komunitatean, Uraren Esparru Zuzentzaileak ezartzen duen helburu nagusia, uraren egoera ona lortzea alegia, betetzen laguntzeko gunea egokia.

HELBURUAK

1. Nafarroan uraren kudeaketan esku hartzen duten eragile desberdinen arteko lankidetzaren erraztea.
2. UEZan eta Uraren Nafarroako Estrategian aurreikusten diren herritarren informazio eta parte-hartze prozesuak sustatuko dituen plataforma izatea.
3. Uraren erabilera onak sustatu eta zabaltea.
4. Beste esperientzia batzuekiko lankidetzaren sustatzea.


EGINKIZUNAK

- Informazioa eta kontsulta eskaintzea.
- Proposamenak eta hitzarmenak erraztea.
- Gizarte eta hezkuntza alorrak lantzea.

Nor izan daiteke partaidea?

- Eskualde edota toki administrazioa.
- Erabiltzaileen komunitateak.
- Enpresak eta enpresaburuen elkarteak.
- Ingurumen heziketako enpresak eta ingurumen aholkularitzak.
- Elkarteak eta profesionalen elkargoak.
- Sindikatuak.
- Kirol elkarteak.
- Garapen agentziak eta turismo partzuegoak.
- Gizarte erakundeak (ekologistak, emakumearen alorrekoak, gazteak, adinekoak, kontsumoa, GKEak).
- Hezkuntza zentro unibertsitatekoak nahiz ez unibertsitatekoak.
- Interesa duen nornahi.





Foroa nola egituratzen da?

1 HERRITARREN INFORMAZIO, KONTSULTA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA (JARDUNALDIAK, MINTEGIAK, SOLASALDIAK...)

Programa honen helburua bikoitza da:

- a) Arroko Plan Hidrologiko berria osatzeko Uraren Esparru Zuzentarauak ezartzen duen informazio eta kontsulta prozesuan interesa dutenen parte-hartzea erraztea.
- b) Gizartean eta hezkuntzan bestelako ekimenak sustatzea Nafarroako urari lotutako gaietan, aurrerago aipatzen direnak.

2 AZPIARROKO PARTE-HARTZE PROZESUAK

Foro hauen bitartez parte-hartze prozesu aktiboa eragin nahi da, gaiari loturiko sektore guztiei irekia, diagnosia aztertu eta azpiarro bakoitzarendako jarduera-neurri batzuk argitzeko guztien artean.

Prozesu hori Ebroko eta Iparraldeko Konfederazioekin koordinazioan garatuko da.

KOORDINAZIO KONTSEILUA sortuko da, Azpiarroko Parte-hartze Prozesuak koordinatzeko eta euren proposamenak harmonizatu eta integratzeko, Nafarroako Gobernuari igorri baino lehen, honek jakinarazi behar baitizkie ur konfederazioei.

Honako azpiarro hauetan aurreikusten da esku-hartzea:

1 EBROKO UR KONFEDERAZIOARI DAGOZKIONAK:

- Ega
- Arga
- Aragoi
- Ebro eta eskuinaldeko ibaiadarrak (Queiles, Alhama)



2 IPARRALDEKO UR KONFEDERAZIOARI DAGOKIONA:

- Bidasoa

3 IDAZKARITZA TEKNIKOA

Idazkaritza honen eginkizunak Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroaren Fundaziotik (CRANA) beteko dira.





Uraren Nafarroako Foroa abian jartzeko aurrekariak



PROPOSAMENA NAFARROAKO GOBERNUARI AURKEZTEA
Iruña, 2005eko irailaren 27a

ELKARRIZKETAK ADITUEI ETA ENTITATE ITZALTSUEI 2005-2006


ESKUALDE ETA TOKI ADMINISTRAZIORAKO MINTEGIA
Atarrabia, 2005eko urriaren 19a



GIZARTE ERAKUNDEETARAKO MINTEGIA
Atarrabia, 2006ko otsailaren 9a



Mintegi hauetan Uraren Esparru Zuzentaraua, Uraren Erabilera Iraunkorrerako Nafarroako Estrategia eta Uraren Nafarroako Fororako proposamena aurkeztu ziren.


Gizarte erakundeei zuzendutako mintegian, eduki hauez gain, uraren kudeaketan gizartearen parte-hartzeaz Espainian zein Frantzian izandako bestelako esperientzia zenbait aurkeztu ziren.





**TOPAKETA MISTOA:
ADMINISTRAZIOA ETA GIZARTE ERAKUNDEAK
Iruña, 2006ko martxoaren 31**


Mintegi honen helburua Uraren Nafarroako Foroa proiektua aurkeztu eta aztertzea izan zen.



**URAREN NAFARROAKO
FOROAREN AURKEZPEN PUBLIKOA
Iruña, 2006ko ekainaren 15a**

Data honetan aurkeztu zen publikoaren aurrean Uraren Nafarroako Foroa, eta bertan izena emateko epea ireki zen. Foroa eratzea 2006ko urrirako aurreikusia dago.





Informazio, gizarte eta hezkuntza alorretako ekimenak

ABIAN DIREN EKIMENAK:

- **WEB: www.crana.org (ikus Ura atala)**

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroaren web orriko "ura" atalean eskura dago. Orri hau sortzerakoan asmoa da Uraren Nafarroako Foroaren garapenaren gaineko informazioa eskuratzeko eta elkarren berri izateko gunea izatea, baita entitateen, erakundeen eta Nafarroako uraren kudeaketarekin, zuzen edo zeharka, harremana duten enpresen gainekoa ere, eta orobat Nafarroako bestelako baliabideen (hornidurak, materialak) eta jardueren gainekoa.


- **Buletin elektronikoa "Uraren Nafarroako Foroa"**

Bihilabetekaria da eta foroan parte hartzen duten pertsoneri eta erakundeei bidaltzen zaie, bai eta interesa duten beste erakundeei ere.

- **Bestelako argitalpenak:**

- "Ura Nafarroan" txostena.
- Azpiarro bakoitzeko argitalpenak (Ega, Arga, Aragoi, Ebro, Bidasoa).





AURREIKUSTEN DIREN BESTE HAINBAT EKIMEN

- **Jardunaldi, mintegi eta eztabaidak.**



- **Prestakuntza jarduerak.**

- Administrazio langile teknikoendako atondutako prestakuntza ekimenak, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren funtzionarioen prestakuntzarako planaren bitartez.
- Gizarte eta ekonomiaren alorretako sektore desberdinei begira jorratutako prestakuntza eta sentsibilizazio ekimenak, bide eta entitate desberdinen bitartez garatzekoak.



- **Teknologien aurkezpenak.**

Uraren Forotik teknologia aurreztaile eta eraginkorrak zabaldu nahi dira, uraren kudeaketarako egokituak. Teknologia horiek ekoizten edo merkaturatzen dituzten enpresek, interesa izanez gero, zerbitzu horren eskaria egin dezakete Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroan (CRANA)



- **Ibaietako ingurumenerako borondatezko lan programa.**

Programa hau irekia izanen da gizarte nahiz udal mailako ekimen desberdinek parte har dezaten (hezkuntza zentroak, herritarren elkarteak, enpresak, bestelako taldeak...)




- **Erakusketa.**

Uraren erabilera iraunkorrari buruzko erakusketa ibiltaria.



- **Uraren erabilera onen sustapena.**

Erabilera onen eredugarri izan litezkeen esperientzia pilotuak garatzea kudeaketa iraunkorraren gainean udaletan, hezkuntza zentroetan eta enpresetan.



Helbide Interesgarriak. Nafarroa

NAFARROKO GOBERNUA ETA ENPRESA PUBLIKOAK

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
www.cfnavarra.es

Osasun Publikoaren Institutua
www.cfnavarra.es/isp

Navarra de Suelo Industrial S.A. (NASUINSA)
www.nasuinsa.es

Riegos de Navarra
www.riegosdenavarra.com

Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A.
www.gavrn.com

Navarra de Medio Ambiente Industrial S.A. (NAMAINSA)
www.namainsa.es

Navarra de Infraestructura Locales, S.A. (NILSA)
<http://nilsa.tracasa.es/>

SOS Navarra
<http://www.cfnavarra.es/sosnavarra>

Nafarroako Foruzaingoa (Patruila Ekologikoa)
www.cfnavarra.es

GOBERNUAREN ORDEZKARITZA NAFARROAN

Estatuko Segurtasun Indarrak Seprona
www.guardiacivil.es/quesomos/organizacion/operaciones/seprona

UDAL, KONTZEJU ETA MANKOMUNITATEAK

Udal eta Kontzejuen Federazioa
www.fnmcc.es

"Arratatz" Ur Mankomunitatea
Ezkarotze / 948 89 00 30

Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitatea
Cintruénigo / 948 81 10 16

Moncayoko Ur Mankomunitatea Corella
Corella / 948 78 00 08

Iruñerriko Mankomunitatea
Iruña / 948 42 32 42 <http://www.mcp.es/>

Mairagako Mankomunitatea
Tafalla / 948 70 33 05

Jurramendiko Mankomunitatea
Lizarrar / 948 55 27 11 <http://www.montejurra.com/>

Sakanako Mankomunitatea
Lakuntza / 948 46 48 67

Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea
Zangoza / 948 87 12 47

Izarbeibarko Zerbitzuen Mankomunitatea
Gares / 948 34 10 76

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea/
Doneztebe / 948 45 17 46

Aragoi Ibarreko Mankomunitatea
Zarrakaztelu / 948 72 51 11

Linaresko Ur Mankomunitatea
Mendabia / 948 685176

Helbide Interesgarriak. Espainia

INGURUMEN MINISTERIOA

Ingurumen ministerioa
www.mma.es/index.htm

Ebroko Konfederazio Hidrografikoa
www.chebro.es

Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoa
www.chnorfe.es

Centro Nacional de Educación Ambiental (CENEAM)
www.mma.es/educ/ceneam/index.htm

Observatorio Nacional de la Sequía (ONS)
http://www.mma.es/rec_hid/sequia/

SUSTAPEN MINISTERIOA

Centro de Estudios y Experimentación de Obras Públicas (CEDEX)
www.cedex.es/home.html

Hispagua
<http://hispagua.cedex.es/>

HEZKUNTZA MINISTERIOA

Instituto Geológico Minero de España
www.igme.es/internet/principal.es

Europa eta Mundua

Europako Ingurumen Agentzia
<http://local.es.eea.eu.int/>

Europako Batasuna_ Ingurumena_
www.europa.eu.int/scadplus/leg/es/s15005.htm

Unesco. Ura, garapen iraunkorra eta munduko ur gezaren baliabideak babestea
www.unesco.org/water/index_es.shtml

NBE Nazio Batuen Erakundea
www.un.org/spanish

UNICEF
www.unicef.org/spanish

UICN Unión Mundial para la Naturaleza
<http://iucn.org/places/medoffice/>

Beste hainbat helbide

Nafarroako Arrantza Federazioa
<http://www.federpesca.com/contenidos/infopesca/Vedas/Navarra.htm>

Asociación Navarra de Pescadores a Mosca (ANAPAM)
<http://www.anapam.org/>

AEMS
www.riosconvida.org

Fundación Ecología y Desarrollo (ECODES)
<http://www.agua-dulce.org/>

Fundación Nueva Cultura del Agua (FNCA)
<http://www.unizar.es/fnca/presentacion1.php>


BAKEAZ (bakeari buruzko dokumentazio eta ikerkuntzarako zentroa)
<http://www.bakeaz.org/>

WWF / Adena
www.wwf.es

Amigos de la Tierra
www.tierra.org

Ekologistak martxan
www.ecologistasenaccion.org

GREENPEACE
www.greenpeace.org



Uraren Nafarroako Foroa Izena emateko buletina

Abizenak Izena

Entitatea.....

Kargua

Posta helbidea

Herria P.K.

Telefonoa Faxa e-posta

Adierazi zure parte hartzeko modua

- Parte-hartzea Herritarren Informazio, Kontsulta eta Sentsibilizazio Programan (Arroko Plan Hidrologikoekin lotutako informazio eta kontsulta ekimenetan parte-hartzea, mintegietan, eztabaidetan...)
- Parte-hartze aktiboa Azpiarroko Parte-hartze Prozesuetan
 - Ega
 - Arga
 - Aragoi
 - Ebro eta eskuinaldeko ibaiadarrak (Queiles, Alhama)
 - Bidasoa
- Informazioa jaso

Igorri 2006ko ekainaren 15etik aurrera

Aita Adoain / k 217 • 31015 Iruña
Tel: 948 136587- 948 140818 • Faxa: 948 123235
agua@crana.org
www.crana.org



Oharra: Izena eman nahi dutenek buletin hau faxez edo e-postaz bidali behar dute, aurrez CRANAren web orritik behera kargatuta.